

PRESTAZIOEN ERREGELAMENDUA

Elkarkidetzaren Pentsioak Lehentasunezko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Planaren izendapena eta haren babesleak.

ELKARKIDETZA LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAEk (Erregelamendu honen ondoretarako, «Erakundea» edo «Elkarkidetz») Elkarkidetz Pentsioak Lehentasunezko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana izeneko gizarte-aurreikuspeneko plana eratu zuen, Erakundearen bazkide babesleen eta bazkide osoen artean dagoen funtzionario-, estatutu- edo lan-harremanaren arabera.

Erakundearen bazkide babesleak dira Tokiko eta Foru Administrazioa, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Bilboko Portuko Agintaritza, Pasaiaiko Portuko Agintaritza, Eusko Jaurlaritza eta Arartekoa eta Guggenheim Museoa, eta baita haiek euren langileekin hartutako betebeharreran ordeztzen dituzten beste edozein erakunde ere etorkizunean bazkide babesle izatea eskatu eta horretarako onartuak direnak ere.

2. artikulua. Erregelamenduaren xedea.

Erregelamendu honen xedea bazkide babesleek eta bazkide osoek Elkarkidetzari egin behar dizkioten ekarpenen erregimena arautzea da, eta estatutuek aitortzen dituzten prestazioen erregimena erregulatzea eta garatzea eta horiek jasotzeko baldintzak zehaztea ere bai.

Erakundeko talde guztiei aplikatuko zaie, Erregelamendu honen Xedapen Iragankorretan talde zehatzetarako aurreikusitako zehaztapenekin.

3. artikulua. Iraupena.

ELKARKIDETZA PENTSIOAK Lehentasunezko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren erregelamenduak iraupen mugagabea du. Erakundea 1986ko urtarrilaren 22an jarri zen martxan, eta edozein unetan desegin ahal izango da, Erregelamendu hau betez.

I. KAPITULUA. BAZKIDEAK SARTZEA

4. artikulua. Onartzea.

Bazkide babesle izateko, ezinbestekoa da euskal instituzioa, organismoa edo sozietatea edo euskal sektore publikoko erakundea izatea edo haiek euren langileekin hartutako betebeharreran ordeztu den eta Elkarkidetzarekin lotuta dagoen erakunde bat izatea (aurrerantzean, «Instituzioak»). Erakundean sartzeko, eskaera egin beharko diote Gobernu Batzordeari, eta hark hiru hilabeteko epean erabakiko du.

Bazkide osoa izateko, ezinbestekoa da funtzionario, lan, estatutu edo zerbitzu harremana edukitzea Erakundeko bazkide babesleren batekin. Erakunde sartzeko, interesdunak eskaera egin beharko dio Gobernu Batzordeari, eta hark hiru hilabeteko epean erabakiko du. Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzuko langileei dagokienean, lan baldintzen edo zerbitzu prestazioen Erregelamenduan eta aplikaziozko Talde Hitzarmenean xedatutakoa ezarriko zaie.

Sartzeko eskaeraren bidez, eta Erakundeak onartu ostean, bazkideak bere gain hartuko ditu Estatutuetan eta Prestazioei buruzko Erregelamenduan aitortutako eskubideak eta betebeharrak, eta horiek berritzeko erabakietatik eratorritakoak ere bai, bereziki Elkarkidetzaren ordezkari- eta erabakitze-organoen bidez taldean erabakiko diren ekarpenen eta prestazioen erregimenari dagokionez.

Eskatzaileak osorik bete behar du sartzeko eskaera, eta Erakundeak eskatutako informazio guztia eman beharko du. Eskatzaileak eskaera osorik betetzen ez badu, Erakundeak ez du bazkide oso moduan onartuko. Halaber, eskaera bakoitzean adierazten den dokumentazioa erantsi beharko du.

Eskaeran datu garrantzitsuren bat emango ez balu, informazio horretatik eratorritako prestazioetatik kanpo geratuko da.

5. artikulua. Esklusioak eta preskripzioak .

Alta aurretik emandako ezintasun iraunkorreko prestazioek ez du Elkarkidetzan ezintasun iraunkorreko prestaziorik sortuko.

Sartzeko eskaerarekin batera, eskatzaileak zinpeko deklarazioa erantsiko du, eta, hala badagokio, jada aitortu zaizkion ezintasun iraunkorreko prestazioak jasota utziko ditu.

Urtebete baino gehiagoz ekarpenik egin gabe egon ondoren berriz sartu diren bazkideek eta borondatezko ekarpenak egiten dituztenek ez dute arrisku-estaldurarik izango, ezintasun iraunkorreko eta heriotza prestazioen kasuan, ekarpenak egiten hasi edo borondatezko ekarpenak egin eta bi urteko epean, hurrenez hurren, ondorengo istripuak eragindako ezintasun iraunkor eta heriotza kasuetan izan ezik.

Instituzio batek alta eskatu eta ontzat emanez gero, haren langileek edo bere zerbitzurako pertsonak bi hileko epea dute Erakunde sartzeko, eta ez zaie aipaturiko gabealdia aplikatuko. Langile berriek edo zerbitzuak ematen dituztenek eskubide berdina izango dute, kontratatatu zaienetik bi hileko epean sartzen badira Erakunde sartzeko.

Kapital gehigarriko eskubidea bost urteko epean preskribatuko da, ezintasun iraunkorraren eta heriotzaren gertakizuna dela eta, epe hori amaitu baino lehen dagokion prestazioa eskatzen ez bada.

II. KAPITULUA BAZKIDE OSOAK

6. artikulua. Bazkide osoak

Bazkide osoen altak onartu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean izango dira indarrean, artikulua honen azkeneko bi paragrafoetan xedatutakoa alde batera utzita.

Bajak eragina izango du hurrengo hilabeteko lehenengo egunean.

Bazkide osoari jatorrizko Institutuzioan, funtzionario, lan, estatutu edo zerbitzu harremana amaitzeagatik edo lan-utzialdia hartzeagatik baja ematen bazaio eta eskubide ekonomikoa mobilizatu ezin izan bada, baja eman eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean etendura-egoeran dagoela iritziko zaio, Erakundeari ekarpenak egiten jarraitu nahi duela espresuki jakinarazten ez badio edo bazkide pasiboa bilakatzen ez bada.

Jatorrizko Institutuzioan baja eman eta Erakundeari ekarpenak egiten jarraitu nahi duten jarduneko bazkide osoek ekarpen indibidualak egiten jarrai dezakete, denbora-mugarik gabe.

Jatorrizko Institutuzioak karrerako funtzionario edo lan-kontratu finkoa duen langile izateari uko egiten dioten langileei dagozkien kalte-ordainak, eta, hala badagokio, ekarpenak, aitortzen badizkie, bazkide osoak ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du. Bazkide osoak Institutuzioak onartutako baldintzetan egingo ditu ekarpen horiek, Gizarte Segurantzako Sistema publikoan edo hark ezarritako antzeko beste batean zehaztutako erretiro-adina bete arte.

Jarduneko bazkide osoak ezingo du haren eskubide ekonomikoa Erakundetik mobilizatu, ezta berreskuratu ere.

Etendura-egoeran dagoen bazkideak ezingo du haren eskubide ekonomikoa berreskuratu. Bazkideak, babestutako kontingentziaren bat izan aurretik, bere eskubide ekonomikoak Lehentasunezko Borondatezko Enpleguko beste Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batera eraman ditzake, eta soilik haren instituzioan baja izan bada.

Instituzioan baja izateagatik etendura-egoeran dagoen bazkide osoak jarduneko bazkide oso moduan berriz sartzeko eskaera egin dezake bazkide babesle den Institutuzio batean berriz sartzen den unean bertan, Erakundearen Estatutuei buruzko 14. artikuluan ezarritakoa betez. Alta Institutuzio batean berriz sartzen den hilabeteko lehenengo egunetik aurrera izango da indarrean.

Etendura-egoeran dagoen eta Institutuzioan baja izan ez den bazkide osoak jarduneko bazkide oso moduan berriz sartzeko eskaera egin dezake edozein unetan, Erakundearen Estatutuen 14. artikuluan ezarritakoa betez. Urte horretan berriz sartzeko eskatzen den lehen aldia bada, alta indarrean izango da eskaera egin eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean. Osterantzean, alta indarrean izango da berriz sartzeko eskaera egin eta hurrengo urteko urtarilaren lehen egunetik.

III. KAPITULUA KUOTAK EDO EKARPENAK

7. artikulua. Ekarpinak.

Pertsonak zein instituzioek Elkarkidetzak onartutako eta argitaratutako urteko oinarriaren arabera egingo dituzte ekarpinak. Ekarpinak 14 ordainketatan banatuta, Toki eta Foru Administrazioaren Akordio Institutuzional-Sindikala betez, eta Erakundeari atxikitako gainontzeko instituzioen Talde Akordioetan edo Hitzarmenetan ezarritakoa aparte utzita. Halaber, Erakundeari ekarpenen berri eman beharko zaio, baliozkotzat eman ditzan.

Urtero, oinarriaren zenbatekoa igoko da, eta horien balioa, bi dezimaletan biribilduta, ezingo da aurreko urtekoa baino txikiagoa izan.

EAEko KPIak uneko urteko azaroaren eta aurreko urteko azaroaren artean izandako igoera aplikatuko zaie oinarriari.

Bazkide babesleen eta bazkide osoen ekarpinak instituzio bakoitzari dagozkion Talde Hitzarmenetan edo Akordioetan zehaztuko dira.

Bazkidearen ekarpinak eta Institutuzioak egotzitako zenbatekoak bat etorri behar dira, hau da, ekarpinak paritarioak izango dira, Institutuzio bakoitzaren Talde Akordioan edo Hitzarmenean ezarritakoaren eta borondatezko ekarpenei buruz hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera. Ekarpen horien berri eman beharko zaio Erakundeari, baliozkotzat eman ditzan.

Aurretiaz ezarritakoa alde batera utzita, erretiratzean Elkarkidetzan 40 urte baino gutxiagoz ekarpinak egin dituzten, lan-bizitzan zehar ekarpenetan etenaldiak izan dituzten edo ekarpen-oinarria soldata baino txikiagoa daukaten bazkideen kasuan, hileroko haien eskubide ekonomikoetan borondatezko ekarpen indibiduala egiteko eska dezakete. Ekarpen hori urteko 4.000 eurokoa izango da gehienez ere.

Borondatezko ekarpen hori bazkidearen konpromiso indartutzat joko da, urtez urte aldatu ahal izango dute soilik. Bestalde, oinarriari aplikatutako igoera berarekin areagotuko da eta artikuluko honetan ezarritakoaren arabera eta banatuko da.

Formalizatuak eta onartuak izan diren borondatezko ekarpenen berri emango da egiten den lehenengo Gobernu Batzordean.

Edonola ere, ekarpenen % 92 aurrezkirako izango da, eta geratzen den % 8 heriotza edo ezintasun iraunkorreko kontingentzietan kapital gehigarria eratzeko erabiliko da, Erregelamendu honen 13. artikuluan ezarritakoarekin betez.

Erakundean alta egiten den egunean bertan egin beharko da ekarpena.

Bazkide babesleak eta bazkide osoak kuotak ordaintzeari utziko diote, dagokion kontingentzia abiarazten den unean.

Bi hilabeteren ostean ekarpenak ordaindu ez badira, arriskuen estaldurak etengo dira, Erakundeak estaldura horiek jarraitzea justifikatzen duten ezohiko egoerak onartzen ez baditu.

Ekarpena ordaintzen ez bada, ez da kapital gehigarririk sortuko. Ekarpenean ordaintzen den bitartean, kapital gehigarriko eskubidea sortuko da, alta egiteko unean espresuki kanpo geratu ez diren arriskuen kasuan eta betiere, preskripzio-epearen barruan tramitatzen bada.

8. artikulua. Ordainketa.

Ekarpenak eraginkortasunez sartuko dira ordainketa egiten den egunean. Bazkide babesleak bazkide osoari dagozkion ohiko ekarpenak deskontatuko dizkio nominatik. Borondatezko ekarpenak, bazkide babesleak nominatik deskontatuko dizkio edo bazkide osoaren kontu korrontetik deskontatuko ditu Erakundeak, bazkide babesleak kasu bakoitzean erabakitzen duen moduan.

Aparteko ordainsariei dagokionez, ekarpen osagarri bat egingo da. Ekarpen horrek hileroko kuoten zenbateko berdina izango du, eta aurrekoekin batera ordainduko da, Talde Hitzarmenak edo Akordioak besterik adierazi ezean. Halaber, Erakundeari jakinarazi beharko zaio, baliozkotzat eman dezan.

Hilabete bat baino gutxiago irauten duten ordaindu gabeko lizentziak eta baimenak ez dira aintzat hartuko, eta epe horretako ekarpen osoa aitortu eta ordainduko da, hainbanatu gabe, Talde Hitzarmenak edo Akordioak besterik adierazi ezean. Halaber, Erakundeari jakinarazi beharko zaio, baliozkotzat eman dezan.

Soldatarik gabeko lizentziek eta baimenek hilabete natural osoak irauten dituztenean baino ez da ekarpenik egingo, Talde Hitzarmenak edo Akordioak besterik adierazi ezean. Halaber, Erakundeari jakinarazi beharko zaio, baliozkotzat eman dezan.

Lanaldi murriztua egiten duten langileen kasuan, ekarpenaren % 50 edo % 100 ordainduko da benetako lanaldia denbora zenbakarriaren % 50 baino txikiagoa edo berdina edo handiagoa denean, Talde Hitzarmenak edo Akordioak besterik adierazi ezean. Halaber, Erakundeari jakinarazi beharko zaio, baliozkotzat eman dezan.

Ez da inolaz ere onartuko pertsona berdinak guztizko ekarpen indibidualaren % 100 baino gehiagoko ekarpena egitea, borondatezko ekarpenen kasuan salbu, aurreko 7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Zerbitzu berezietan, nahitaezko lan-utzialdian, senideak zaintzeko lan-utzialdian, genero-indarkeriagatiko lan-utzialdian, Gizarte Segurantzaren ezintasunagatiko kalifikazioaren atzerapenean edo zerbitzu-eginkizunetan dagoen funtzionarioa jatorrizko Institutuzioan jardunean dagoela joko da. Beraz, instituzio horren bitartez egin beharko du ekarpena, jatorrizko instituzioarekin, edo, hala badagokio, helmugako Institutuzioarekin, bestelakorik adosten ez badu.

Nahitaezko lan-utzialdian, senideak zaintzeko lan-utzialdian, genero-indarkeriagatiko lan-utzialdian, Gizarte Segurantzaren ezintasunagatiko kalifikazioaren atzerapenean edo zerbitzu-eginkizunetan dagoen langile lan-kontratuduna jatorrizko Instituzioan jardunean dagoela joko da. Beraz, instituzio horren bitartez egin beharko du ekarpena, jatorrizko instituzioarekin, edo, hala badagokio, helmugako Instituzioarekin, bestelakorik adosten ez badu edo Talde Hitzarmenak edo Akordioak besterik adierazi ezean. Halaber, Erakundeari jakinarazi beharko zaio, baliozkotzat eman dezan.

Bazkide babesleak eta bazkide osoak ekarpenak egiteari utziko diote, azken horrek Gizarte Segurantzako Sistema Publikoan edo antzeko beste batean zehaztutako erretiro-adina betetzen duenean. Salbuespena dira Gizarte Segurantzako Sistema Publikoan edo antzeko beste batean erretiro-adina betetzen dutenean erretiro-pentsio publikoa jasotzeko beharrezkoa den gabealdia estalita ez duten pertsonak. Kasu horretan, ekarpenak mantendu ahal izango dira, gabealdi hori betetzen duten arte.

Bazkide osoak bazkide babeslearen baitan betetzen dituen zerbitzuak amaitu edo eteten baditu eta egindako ekarpena Erregelamendu honetan ezarritako denboraz mantentzea erabakitzen badu, banku-helbideratze bidez egingo du ordainketa.

IV. KAPITULUA PRESTAZIOAK

LEHENENGO ATALA- BALDINTZA OROKORRAK

9. artikulua. Prestazioak.

Erregelamenduak prestazio hauek arautu eta garatzen ditu:

- Erretiroa.
- Ezintasun iraunkorra.
- Alarguntza.
- Zurztasuna.
- Heriotza.
- Gaixotasun larria.
- Iraupen luzeko langabezia.

10. artikulua. Jasotzeko baldintzak.

Bazkideak Erregelamendu honetan araututako prestazioak eskuratzeko eskubidea sortuko da, eta, beraz, prestazioa sorraraziko da, baldintza hauek betetzen direnean:

- Dagokion prestazioaren gertaera eragilea jazo izana.
- Pertsona eragileak lan edo zerbitzu aktiboan funtzionario edo estatutupeko harremana eten izana edo instituzioan zerbitzuak emateari utzi izana.
- Prestazioa eskatzean kausatzaileak hura jasotzeko eskubidea izan dezala eta Erakundearekiko betebeharrak egunean izan ditzala.
- Prestazioa jasotzeko eskaera Erakundearen ereduaren arabera beteta aurkeztu izana, Erregelamendu honen 16. artikulua eskatzen dituen agiriekin bat.

Prestazio eskaerak ez dira onartuko ez izapidetuko, eta, ondorioz, ez da ulertuko prestaziorik sortu denik, bazkide eragileari dagozkion, bazkide osoaren eta bazkide babeslearen ekarpen guztiak Erakundearen ordainduta ez badaude.

11. artikulua. Epeak.

11.1. Prestazioaren eskaerak idatziz bidaliko zaizkio Gobernu Batzordeari, eta hurrengo hilabetearen azken eguna baino lehen ebatziko dira, eskatutako baldintzak betez gero. Hilabete bakoitzeko prestazioak ebatzeko, itxitako azken hilabeteko errentagarritasuna hartuko da kontuan, hau da, Eskubide Ekonomikoa ebazpenaren hilabeteke lehen eguneko likidazio balioarekin baloratuko da.

11.2. Sortutako prestazioak kobratzeko eskubidea indarrean izango da gertaera eragilea eman eta hurrengo egunetik, betiere hurrengo sei hilabeteke epean eskaera behar bezala beteta aurkezten bada.

11.3. Erakunde Publiko eskudunak behin betiko aitortzen duen egun berean izango du eragina ezintasun iraunkorra kobratzeko eskubideak, bazkideak alta egindako dataren ostekoa bada, eta lana uzten bada, betiere. Lanpostua geroago uzten bada, kobratzeko eskubidea hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

11.4. Bazkide pasiboek eta prestazioaren pertsona onuradunek sortutako prestazioen errenta kobratzeko, NANarekin Erakundearen bulegoetara joan beharko dute urtero, edo bizi-agiria bidali, Erakundeak hala eskatzen duenean. Eskakizun hori betetzen ez badute, errenta etengo zaie agiria aurkezten ez den bitartean.

11.5. Jardunean dagoen bazkide osoaren ezintasun iraunkorragatiko eta heriotzagatiko prestazioen kalkuluan kapital gehigarria sartzeko, prestazio horien eskaera bost urteke epean aurkeztu beharko da, erakunde publiko eskudunak ezintasun iraunkorra behin betiko onartzen duenetik edo heriotza gertatu denetik zenbatzen hasita.

12. artikulua. Zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

12.1. Prestazioak Eskubide Ekonomikoaren arabera kalkulaturako errenta edo kapital baten bidez kobratuko dira, eta, hala badagokio, prestazioa ematen den unean dagoen kapital gehigarriaren bidez, kontingentzia bakoitzak zehazten duenaren arabera.

Prestazioa kapital moduan jaso ahal izateko, Erregelamendu honen arabera jaso daitekeen errenta ezin daiteke Gobernu Batzordeak onartutako gutxieneko 111 euroko pentsiora iritsi.

Erakundearen Gobernu Batzordeak onartutako diseinu teknikoaren azterketa aktuarialaren bidez kalkulaturako dira errentak.

Bazkide osoek behin-behineko errenta moduan jasoko dituzte erretiroaren, ezintasun iraunkorraren eta alarguntzaren prestazioak, 90 urte betetzen dituzten arte. Ordainketak ziurrak dira, hau da, ordainketak egiteko probabilitatea batekoa da. Adin horretatik aurrera, aldiz, biziarteko errenta geroratua jasoko dute, ordainketa probableen zenbateko berdinarekin, eta diru hori kobratzeko eskubidea duen pertsonak edo pertsonak bizirik irauten dutenaren arabera izango da. Alarguntzaren onuradunari erretiratuak edo ezindua jasotzen duen diru-kopuru berdina ordainduko zaio, eta ekainean eta abenduan hileroko gehigarria jasoko du zenbateko berdinarekin.

Errentak parametro finantzario eta aktuarial hauekin kalkulaturako dira:

(i) Aldi baterako Errenta kalkulatzeko parametro finantzarioak.

Errenta finantzarioak hasiera batean % 0,50 interes-tasarekin kalkulaturako dira.

(ii) Biziarteko Errenta Geroratua kalkulatzeko parametro aktuarialak.

Hauetako Biziarteko Errenta Geroratua kalkulatzeko parametro aktuarialak:

Biziarteko Errenta Geroratua indibidualki kalkulatu da, eta 'PER2020 Colectiva primer orden' hilkortasun-taulak erabiltzen dira, % 0,50 interes-tasa teknikoarekin.

Horren arabera, pertsona batentzako errentak kalkulatzeko, taldeko batez besteko kide bati dagozkion ezaugarriak hartuko dira aintzat: adin eta jaiotegun berdina dutenek zenbateko berdina jasoko dute, sexuaren eta egoera zibilaren arabera bereizi gabe.

Ezin da errenten balioa handitu.

Mozkinetan parte hartzea: Urtero, ekitaldian lortutako errentagarritasunak errenta kalkulatzeko zehaztu den interes-tasa teknikoa gaitu eta % 25 areagotzen badu, errenta % 70 hobetu ahal izango da soberakin horren gaitetik, betiere, % 2, % 0,75 edo % 0,25eko mugarekin, pentsioa kalkulatzeko erabili den interes tasaren arabera, % 0,50, % 1,75 edo % 2,25 hurrenez hurren, hornidura teknikoetarako zuzkidurak egin ostean eta betiere kaudimena % 10 baino handiagoa denean.

Gobernu Batzordeak urtero berrikus ditzake ehuneko horiek, erabaki arrazoitu bidez eta Erakundearen iraunkortasun ekonomikoa eta atxikitako prestazioak kontuan izanik.

Edonola ere, aurreko ekitaldi batean edo batzuetan lortutako errentagarritasuna pentsioa kalkulatzeko ezarri den interes-tasa teknikoa %25ean areagotzera heltzen ez denean, ondorengo ekitaldietan aurrekoetan izandako desfase guztia zuzendu eta normalizatu behar da aurrena, etekinetan partaidetza sortu ahal izateko.

Hornidura teknikoa banaka kalkulatzeko da eta BGAEen jarduera jakin batzuk arautzeko maiatzaren 29ko 92/2007 dekretuko 8. artikuluan jasotako parametroak erabiliz eta dagokion zuzkidura teknikoa emanez, % 4ko gutxieneko segurtasun-marjinarekin.

Lortutako errentagarritasuna ez bada interes-tasa teknikora iristen, Erakundeak erreserbak erabili ahal izango ditu hornidura teknikoa emateko. Erreserba nahikorik ez badago, berrorkatze-plana egingo da, eta Eusko Jaurlaritzak onartu beharko du plan hori.

Korporazioaren web-orrian (www.elkarkidetza.eus) argitaratzen da errenta eta zuzkidura matematikoak eta parametroak kalkulatzeko ohar teknikoa, nahi duenak ikus dezan.

12.2. Errenta hilabete bakoitza amaitzen denean ordainduko da, eta errenta jasotzeko eskubidea amaitzen den azken hilabeteraino iraungo du. Ekainean eta abenduan ordainketa gehigarria egingo da, hileroko baten zenbatekoaz.

12.3. Lehenengo pentsio-ordainketa kalkulatzeko, gertaera eragilea ematen denetik hilabetea amaitu arte dauden egunen artean hainbanatuko da hileko ordainketa, eta hogeita hamar egunekin zatitu, betiere eskaera, behar bezala betea, gertaera eragilea gertatu eta hurrengo sei hilabeteetan aurkezten bada. Bestela, lehenengo pentsio-ordainketa kalkulatzeko, eskaera egin den hurrengo egunetik hilabetea amaitu arte dauden egunen artean hainbanatuko da hileko ordainketa, eta hogeita hamar egunekin zatitu.

Ekaineko edo abenduko lehenengo estra ordaintzeko, gertaera eragilea ematen denetik seihilekoa amaitu arte dauden egunen artean hainbanatuko da hileko ordainketa, eta ehun eta laurogei egunekin zatitu, betiere eskaera, behar bezala betea, gertaera eragilea gertatu eta hurrengo sei hilabeteetan aurkezten bada. Bestela, ekaineko edo abenduko estra ordaintzeko, eskaera egin den hurrengo egunetik seihilekoa amaitu arte dauden egunen artean hainbanatuko da hileko ordainketa, eta ehun eta laurogei egunekin zatitu.

12.4. Eskubide ekonomikoak osorik kobratzen direnean, bazkide osoaren, bazkide pasiboaren, pertsona onuradunen eta Erakundearen arteko harremanak amaitzen dira, eta haien artean dituzten eskubide eta betebeharrak guztiak amaitzen dira ere, ondore guztietarako.

12.5. Aitortutako prestazioa momentuan aplikagarria den zerga-arauak zehazturiko zerga-ordainketari lotuta egongo da, Erakundeak ez duelarik bazkide osoei, bazkide pasiboei edo pertsona onuradunei aholkularitza fiskala edo finantzariarako betebeharririk eta erantzukizunik hartuko bere gain arlo horretan. Erakundea ez da prestazio bakoitzari aplikatu behar zaion zerga-araudiaren ondoriozko aitopenenaren, edo azken honen berrikuspenaren arduraduna izango.

13. artikulua. Eskubide ekonomikoak

Bazkide osoaren eskubide ekonomikoak dira hark eta bazkide babesleak bazkide osoaren kargura aldiaren behin egindako aurrezki-ekarpenen ondorioz lortutako ondare indibiduala. Eskubide ekonomikoak kudeaketan sortutako mozkinak ere barne hartzen ditu, administrazio-gastuak ordaindu eta Erakundeari dagozkion hornidurak eta erreserbak eman ostean.

Ezintasun iraunkorraren eta heriotzaren kasuan, ondare horrek kapital gehigarria izango du, hala badagokio eta, beti ere, preskribatu ez bada. Jarduneko bazkide osoak ezintasun iraunkorra badu edota hiltzen bada, kapital gehigarri hori aurrezpena osatzeko kapital moduan emango da.

Kapital gehigarria kalkulatzeko, jarduneko bazkide osoak egindako hileko batez besteko ekarpena, eta, hala badagokio, egotzitakoa (hots, aurreko hamabi hilabeteetako) prestazioaren gertaera eragilearen eta Gizarte Segurantzako Sistema Publikoan edo antzeko beste batean zehaztutako erretiro-adinaren artean dauden hilabeteekin biderkatuko da, eta horri guztiari 1,20 koefizientea aplikatuko zaio. Erakundearen Gobernu Batzordeak koefiziente hori urtero alda dezake.

Jarduneko bazkide osoak ezintasun iraunkorra badu edota hiltzen bada eta lehenengo ekarpena egin denetik hamabi hilabete pasa ez badira, kapital gehigarria kalkulatzeko ekarpenak benetan egin diren aldiaren batezbestekoa hartuko da oinarritzat, eta epealdi hori hilabete baino gutxiagokoa balitz, proportzionalki kalkulatu litzateke, hileroko egin beharko lukeen ekarpena kalkulatzeko. Horren arabera kalkulatu da kapital gehigarria.

Prestazioa ematen den unean bertan, eskubide ekonomikoen parte bat Erakundearen berezko funtsetara bideratuko da, kaudimen-funtsa eratzeke. Zenbateko hori zuzkidura teknikoaren % 5,33 izango da.

14. artikulua. Administrazio-gastuak.

Gobernu Batzordearen proposamenez, Batzar Nagusiak uneko ekitaldiaren administrazio-gastuen ehunekoa onartuko du urteko Kudeaketa Planean, estatutuen arabera ezarritako mugen barruan.

Prestazioei buruzko Erregelamendu honen bidez ezartzen diren Erakundearen administrazio-gastuak hari atxikitako batezbesteko ondarearen % 0,65 dira, eta barne hartzen dituzte Talde Inbertsioko Institutioetan (TII) edo Arrisku Kapitaleko Erakundeetan (AKE) egindako inbertsioen komisio inplizituak, honela xehatuta: % 0,29 administrazio-gastuak, eta % 0,36 inbertsio inplizituak TIIetan edo AKEetan.

15. artikulua. Iraungitzea.

Biziarreko errenta osatzen duten prestazioak bazkide pasiboa edo pertsona onuraduna hiltzen denean iraungiko dira. Errenta ziur moduan jasotzen diren prestazioak iraungi egingo dira, ezarritako epea betetzean eta/edo epea amaitu baino lehen bazkidea hiltzen bada, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

16. artikulua. Prestazioa eskatzea.

Erakundeak eska ditzakeen dokumentuak alde batera utzita, eskatzaileak prestazio-eskaera bete beharko du, eta haren egoera pertsonalaren eta familiarraren gaineko zinpeko aitortpen bidez egin beharko du hori, agiri hauek erantsita:

- Eskatutako prestazioari bide ematen dion kontingentzia egiaztatzen duten agiriak.
- Kausatzaileak zerbitzuak emango dituen Instituzioaren administrazio-edo lan-egoeraren ziurtagiria.
- NAN agiriaren fotokopia.
- Familia-liburua edo haren egoera zibila eta pertsona onuradunak egon daitezkeela egiazta dezakeen beste edozein agiri.
- Haren helbidearen eta prestazioen ordainketarako kontu-zenbakiarekin komunikazio idatzia.
- Beste pertsona batekin «ezkontide gisa» bizi denean, bi pertsonak adinez nagusiak direla eta behintzat gertaera eragilearen aurreko urtean etenik gabe batera bizi izan direla egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Heriotzaren ziurtagiria, eta, hala badagokio, testamentu- edo abintestato-oinordetza dagoen egiaztatzeko agiria, prestazioek hala behar badute.

BIGARREN ATALA.- ERRETIRO PRESTAZIOA

17. artikulua. Definizioa.

Erretiro-prestazioaren ondorioz, bazkideak prestazio ekonomiko bat jaso ahal izango du, Gizarte Segurantzaren edo antzekoetan dagokion erregimenean erretiroa eskuratzea badu, lan egiteari uzten badio eta eskaera betetzen badu.

Sistema Publikoko erretiroa salbuetsi daiteke, bazkide osoak Gizarte Segurantzako Sistema Publikoak edo antzeko batek zehaztutako erretiro-adin legala betetzean Sistema Publikoko erretirorako kotizaziopeko pentsioa jasotzeko beharrezko gabealdiak betetzen ez baditu eta lan egiteari utzi badio.

18. artikulua. Zenbatekoa.

Dagokion prestazio ekonomikoa une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan.

Erretiro-prestazioaren ondorioz, aldi baterako errenta ordainduko da 90 urte bete arte, eta biziarteko errenta geroratua, berriz, adin horretatik aurrera, Erregelamendu honen 12. artikuluan jasotakoa

betez. Biziarteko errentak barne hartzen du erretiro-errentaren % 100eko biziarteko errenta haren alargunarentzat.

Erretiratuaren alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean, betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

Erretiratua hilko balitz, alarguntzaren onuradunak izango du errenta hori kobratzeko eskubidea bizi den bitartean.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik erretiratua hilko balitz eta alarguntza jaso dezakeen onuradunik ez badago edo azken hori ere hilik badago, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, bazkide osoak 90 urte beteko zituen unera arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, bazkide osoak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

Erregelamendu honetan aurreikusitako salbuespenak alde batera utzita, aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulatuta) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako zenbatekoa ezingo da inoiz ere prestazioa ematen den unean bazkideak ekarpen indibidualekin lortutako aurrezpena baino handiagoa izan.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, bazkide osoak zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango du.

HIRUGARREN ATALA- EZINTASUN IRAUNKORREKO PRESTAZIOA

19. artikulua. Definizioa.

Ezintasun iraunkorreko prestazioarekin, bazkide osoak prestazio ekonomikoa jaso ahal izango du, Gizarte Segurantzako Lege Orokorrak edo hura ordezkatzeko duen erregelamenduak zehaztutakoaren arabera, ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia aitortzen bazaio behin betiko edo epai irmoaren bidez, lan egiteari uzten badio eta eskaera egiten badu.

20. artikulua. Zenbatekoa.

Prestazio ekonomikoa une horretan metatutako eskubide ekonomikoaren arabera kalkulatu da prestazioa ematen den unean bertan.

Jarduneko bazkide osoari dagozkion eskubide ekonomikoek Erregelamenduaren 13. artikuluan jasotako eskubide ekonomikoa eta kapital gehigarria barne hartuko dituzte.

Etendura-egoeran dagoen bazkide osoari dagokion eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarria barne hartuko.

Ezintasun iraunkorraren kasuan, bazkideari behin-behineko errenta ordainduko zaio 90 urte betetzen dituen arte, eta adin horretatik aurrera, biziarteko errenta geroratua jasoko du, Erregelamendu honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera. Biziarteko errenta horren ondorioz, alarguntzaren onuradunak biziarteko errenta jasoko du, ezintasun iraunkorrerako errentaren % 100ekoa izango dena.

Ezinduren alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean, betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

Ezindua hilko balitz, alarguntzaren onuradunak izango du errenta hori kobratzeko eskubidea bizi den bitartean.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik ezindua hilko balitz eta alarguntza jaso dezakeen onuradunak ez badago edo azken hori ere hilik badago, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, bazkide osoak 90 urte beteko zituen unera arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, bazkide osoak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoreetarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

Erregelamendu honetan aurreikusitako salbuespenak alde batera utzita, aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulaturik) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako pentsioaren zenbatekoa ezingo da inoiz bazkideak egindako banako ekarpenei dagokien aurrezkiak baino handiagoa izan prestazioa ematen den unean.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, bazkide osoak zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango du.

Ezintasun iraunkorreko prestazioa kobratzeak ezintasun iraunkorreko prestazio berriak sortzea eragozten du.

LAUGARREN ATALA.- ALARGUNTZA PRESTAZIOA JARDUNEAN EDO ETENDURA EGOERAN DAUDEN BAZKIDEAREN HERIOTZARENGATIK, ALARGUNTASUNAREN ONURADUNAK BAINO EZ DAUDENEAN.

21. artikulua. Definizioa.

Jardunean edo etendura-egoeran dagoen bazkidearen heriotzagatiko alarguntzaren prestazioaren kasuan, onuradunari prestazio ekonomikoa ordainduko zaio.

22. artikulua. Pertsona onuraduna.

Hildako kausatzailearen alarguntzaren onuraduna haren ezkontidea da, eta harekin «ezkontide gisa» bizi izan dena, ezkontza-loturarik eduki ez arren, urtebetez elkarrekin bizitzen egon direla egiaztatzen denean betiere. Kanpo geratuko dira judizialki banandutako ezkontideak, behar bezala egiaztatuta.

Giza hilketaren edo lesioen doluzko delitu batengatik epai irmoz kondenatua izan den pertsonak alarguntzaren onuradun izateari utziko dio, delitu horien biktima prestazioaren eragilea bazen.

23. artikulua. Zenbatekoa.

Dagokion prestazio ekonomikoa une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan.

Jarduneko bazkide osoari dagozkion eskubide ekonomikoek Erregelamenduaren 13. artikuluan jasotako eskubide ekonomikoa eta kapital gehigarria barne hartuko dituzte. Etendura-egoeran dagoen bazkide osoari dagokion eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarria barne hartuko.

Alarguntza-prestazioarekin, bazkideari behin-behineko errenta ordainduko zaio 90 urte betetzen dituen arte, eta adin horretatik aurrera biziarteko errenta geroratua jasoko du Erregelamendu honen 12. artikuluan jasotakoaren arabera.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik alarguntza jaso dezakeen onuraduna hilko balitz, bazkide osoaren seme-alabek, edo, horrelakorik ezean, oinordekoek, aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, alarguntzaren onuradunak 90 urte beteko zituen arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, alarguntzaren onuradunak 90 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatuko dira seme-alaben, edo, hala badagokio, oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

Erregelamendu honetan aurreikusitako salbuespenak alde batera utzita, aurrezki guztiaren % 25 kapital modura jaso daiteke, errentak (soberako eskubide ekonomikoarekin kalkulata) modu horretara kobratzeko gutxieneko zenbatekoa gainditzen badu. Zenbateko hori errenta modura kobratzeko gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa balitz, ezarritako hileko gutxieneko pentsioa gainditzen duen kopurua bakarrik jaso ahal izango da kapital modura.

Kapital modura jasotako zenbatekoa ezingo da inoiz ere prestazioa ematen den unean hildako bazkideak ekarpen indibidualekin lortutako aurrezpena baino handiagoa izan.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, jardunean edo etendura egoeran hildako bazkide osoaren onuradunek, laugarren sekzioan ezarritakoaren arabera, zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango dute.

BOSGARREN ATALA.- ZURZTASUN PRESTAZIOA JARDUNEAN EDO ETENDURA EGOERAN DAUDEN BAZKIDEAREN HERIOTZARENGATIK, ZURZTASUNAREN ONURADUNAK BAINO EZ DAUDENEAN.

24. artikulua. Definizioa.

Jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkide osoaren heriotzagatiko zurztasun-prestazioaren ondorioz, pertsona onuradunari kapital, edo, hala badagokio, errenta bat ordainduko zaio 25 urte betetzen dituen arte, alarguntza-prestaziorik jaso ezin bada, betiere. Prestazio hori Erregelamendu honen IV. Kapituluaen Laugarren Atalean araututa dago.

25. artikulua. Pertsona onuradunak.

Hildako kausatzailearen seme-alabak, alarguntza-prestaziorik ez badago, betiere.

26. artikulua. Zenbatekoa.

Prestazio horri dagokion kapitala une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan, eta bazkide osoaren seme-alaba guztien artean berdin banatu da. 25 urtetik beherako umezurtz bakoitzak dagokion zenbatekoa behin-behineko errenta modura jasoko du, adin hori bete arte.

Jarduneko bazkide osoari dagozkion eskubide ekonomikoek Erregelamenduaren **13.** artikuluan jasotako eskubide ekonomikoa eta kapital gehigarria barne hartuko dituzte.

Etendura-egoeran dagoen bazkide osoari dagokion eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarria barne hartuko.

Behin-behineko errenta ordaintzeko epea amaitu aurretik zurztasunaren onuraduna hilko balitz, bazkide osoaren oinordekoek aukera hauek dituzte:

- epea amaitu arte errenta kobratzen jarraitzea, hau da, umezurtzak 25 urte beteko zituen arte, edo
- ordainketa bakarra jasotzea, hots, umezurtzak 25 urte bete arte jasoko lituzkeen errenten batura, errenta kalkulatzeko erabilitako interes teknikora eguneratuta.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak berdin banatzen dira oinordekoen artean.

Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

SEIGARREN ATALA.- HERIOTZA PRESTAZIOA JARDUNEAN EDO ETENDURA EGOERAN DAUDEN BAZKIDEAREN HERIOTZARENGATIK, ALARGUNTASUNAREN EDO ZURZTASUNAREN ONURADUNIK EZ DAGOENEAN.

27. artikulua. Definizioa.

Jardunean edo etendura-egoeran dauden bazkide osoaren heriotzagatiko prestazioarekin, bazkidearen oinordekoei kapital bat ordainduko zaie bazkidea hitzen denean, alarguntzaren eta zurtasunaren prestaziorik ematen ez bazaie. Prestazio hori Erregelamendu honen IV. Kapituluaren Laugarren eta Bosgarren ataletan araututa dago.

28. artikulua. Pertsona onuradunak.

Prestazioaren onuradunak izango dira hildako bazkide osoaren oinordekoak.

Prestazio honen ondoretarako, bazkide osoaren oinordeko izango dira oinordeko gisa aitortutako pertsonak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

29. artikulua. Zenbatekoa.

Prestazio horri dagokion kapitala une horretan metatutako eskubide ekonomikoen arabera kalkulatu da, prestazioa ematen den unean bertan bazkide osoaren oinordeko guztien artean zati berdinetan banatuta.

Jarduneko bazkide osoari dagozkion eskubide ekonomikoek Erregelamenduaren 13. artikuluan xedatutako eskubide ekonomikoa eta kapital gehigarria barne hartuko dituzte.

Etendura-egoeran dagoen bazkide osoari dagokion eskubide ekonomikoak ez du kapital gehigarria barne hartuko.

ZAZPIGARREN ATALA.- GAIXOTASUN LARRIA

30. artikulua. Gaixotasun larria.

30.1. Gaixotasun larriagatiko prestazioaren bidez, egoera horrek iraun bitartean errenta bat jasoko du hilero, hots, azkeneko hamabi ekarpen indibidualen batezbestekoa bost aldiz gehienez, eta haren eskubide ekonomikoari egotziko zaio, hura agortzen den arte. Horretarako, aurrena eskaera egin beharko du.

Jarduneko bazkide osoa bada, ekarpenak egin beharko dizkio Erakundeari, prestazio hori jaso bitartean.

30.2. Min fisikoa edo mentala edo lesioa gaixotasun larritzat joko da, bazkide osoari behintzat hiru hilabeteko epean ohiko jarduera burutzea galarazten badio, eta ospitale batean kirurgia handiko ebakuntza klinikoa edo tratamendua egin behar bazaio. Halaber, bazkideak ezingo du ezintasun iraunkorreko prestaziorik jaso.

30.3. Gaixotasun larriak bazkideari, haren ezkontideari edo izatezko bikoteari, haien lehen graduko ahaide bati edo babes- edo harrera-erregimenean bazkidearekin bizi den edo haren mendekoa den pertsonari eragin diezaioke.

30.4. Bazkide osoak behar bezala egiaztatu behar du haren errenta erabilgarria murriztu egin dela, gastuak igotzearen edo diru-sarrerak gutxitzearen ondorioz. Gastuen aurrekontuak aurkeztea onartuko da, horretarako.

Gaixotasun larria ziurtagiri medikoaren bidez egiaztatu beharko da. Ziurtagiri hori gaixotasuna duen pertsona artatzen duen Gizarte Segurantzako osasun-erakundearen zerbitzu eskudunak edo erakunde itunduak igorri beharko du.

ZORTZIGARREN ATALA.- IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA.

31. artikulua. Iraupen luzeko langabezia.

31.1. Iraupen luzeko langabeziarengatik jasotako prestazioarekin, behin eskaera eginda, bazkideak errenta bat jasoko du hileroko, hau da, bazkideari kontribuzio mailako langabezia prestazioan jasotakoaren arabera prestazioa emango zaio. Bazkideak prestazioa ordainketa bakarrean ematea eska dezake, enplegua sustatzeko helburuarekin. Errenta hori haren eskubide ekonomikoari egotziko zaio, hura agortzen den arte, ondoren zehazten den bezala.

Hileko errenta baliokidearen zenbatekoa zehazteko, oinarritzat hartuko dira urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 36.2 artikuluan jasotako parametroak. Lege horren bidez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Lege Erregelamendua onartu zen.

Ordainketa bakarraren zenbatekoa zehazteko, bazkideak kotizatutako epealdiaren arabera ezarritako hileko kopuru batekin biderkatu beharko da, dagokion langabeziaren hileroko errenta. Aurrez, langabezia dela eta aplikatutako epealdiak murriztuko zaizkio kalkulua egiterakoan, hala badagokio. Kotizatutako epealdia bi urtetara iristen ez denean, 8 hileko dagozkio, 2 eta 4 urte arteko epealdia duenean, 16 hileko aplikatuko zaizkio eta 4 urteko epealdia baino gehiago kotizatu duenean berriz, 24 hileko aplikatuko zaizkio.

31.2 Iraupen luzeko langabeziatzat joko da baldintza huetan lana galtzea:

(i) Legez langabezia-egoeran egotea, hau da, lan- edo administrazio-harremana amaitutzat ematea eta Gizarte Segurantzaren legediaren arabera lan-kontratutzat jotzen dena etetea.

(ii) Ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea, edo, hala badagokio, prestazioa urtebetez kobratu izana edo hura agortu izana. Langabezian egondako hamabi hilabeteak jarraian ez izan arren, urteko zenbatekoa egiaztatzea daiteke.

(iii) Lan-eskatzaile gisa izena eman izana dagokion enplegu-zerbitzu publikoan.

31.3. Errenta gisa jasotako iraupen luzeko langabeziaren prestazioa langabezia-egoerak iraun bitartean mantenduko da, eta lan-agintaritza eskudunak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, hiru hilez behin.

Prestazioa ordainketa bakarrean jaso nahi den kasuan, eta iraupen luzeko langabezia egiaztatzeko soilik, eskaera hori aktibitatea edo enplegua abian jarri aurretik aurkeztu beharko da.

31.4. Ordainketa bakarreko iraupen luzeko langabezia, bazkidearen benetako autoenplegurako bideratua, aitortuko da betiere azken 4 urteetan beste horrelako eskaerarik egin ez bada eta lan-aktibitatea martxan jartzeko izandako gastuen arabera, 31.1. artikuluan jasotako muga eta Eskubide Ekonomikoaren muga gainditu gabe.

Aipatu prestazioa ordainduko da, inbertsioagatik edo bazkidearen lan-aktibitateagatik egindako gastuen agiriak aurkeztu ondoren, eta aurkezpen hori egin eta hurrengo hilabetearen azken eguna baino lehen.

V. KAPITULUA. ERREGELAMENDUA ALDATZEKO PROZEDURA

32. artikulua. Eskakizunak eta prozedura.

32.1. Erakundearen Gobernu Batzordeari dagokio Erregelamendua aldatzea, eta, horretarako, botoen gehiengo sinplea beharko du.

32.2. Erregelamenduan egindako aldaketak eraginkorrak izan daitezen, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren, edo, hala badagokio, hura eskuordetzen duen organoaren baimena beharko da, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan jaso beharko dira.

VI. KAPITULUA ERREKLAMAZIOAK ETA KONTSULTAK EGITEKO PROZEDURA

33. artikulua. Bazkideen erreklamazioak.

33.1. Bazkideek eta onuradunek Gobernu Batzordean aurkeztuko dituzte Prestazioei dagokienez Erregelamenduan eta Estatutuetan eta aplikaziozkoak diren gainontzeko funtsezko erregelamenduetan aitortuta dituzten interesei eta eskubideei buruzko kexak edo erreklamazioak.

33.2. Kexak eta erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira Gobernu Batzordean. Arrazoia adierazi beharko da, eta erabaki beharreko gaiak zehaztu, baita bidezkotzat jotzen diren agiriak eta frogak aurkeztuko ere.

34. artikulua. Aurkezpen-epea eta ebazpena.

34.1. Kexa edo erreklamazioa aurkezteko epea urtebetekoa da, kexaren edo erreklamazioaren gertaera eragilea eman zenetik.

34.2. Kexa edo erreklamazioa 15 eguneko epean erabakiko da, Erakundearen sartzen denetik. Epea amaituta ebazpen espresik eman ez bada, uko egin zaiola joko da, eta bide administratiboa, arbitrala eta judiziala irekiko dira.

Gobernu Batzordearen erreklamazioak ebazteari dagokionez, Estatutuek ezartzen dute lehendakariari egotzi ahal zaiola funtzio hori, eta, beraz, hari dagokio erreklamazioak ebaztea, Gobernu Batzordeak arazoak ebazteko epearen barruan biltzerik ez badu. Nahiz eta ebazpena eskuorde daitekeen, erabakia Gobernu Batzordeak hartu duela iritziko zaio, ondore guztietarako.

34.3. Edonola ere, ebazpena arrazoitu beharko da, eta estatutuen, arauen eta funtsezko erregelamenduen legezko aplikazioaren oinarriak bilduko ditu. Interesdunari erabakiaren berri emango zaio 10 eguneko epean, ebazpena hartzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpena loteslea izango da Erakundearentzat. Hala ere, interesdunak bestelako egintzak bidera ditzake gai horren gainean, administrazioaren, epaitegien edo arbitrajearen bidetik.

VII.KAPITULUA. PLANA IRAUNGITZEA

35. artikulua. Iraungitzeko arrazoiak.

Plana arrazoi hauengatik iraungiko da:

- a) Bazkideen eta onuradunen taldeak desagertzea.
- b) Lehentasunezko Gizarte Aurreikuspeneko Planari atxikitako aktiboak galtzea.
- c) Erabat fusionatzea edo zatitzea.
- d) Lehentasunezko Gizarte Aurreikuspeneko Plana lehentasunezko enpleguko borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde batera lekualdatzea.
- e) Kide den lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko erakundea iraungitzea.

36. artikulua. Esleitutako ondarearen helmuga.

Edonola ere, Plana deuseztatzeko, ezinbesteko baldintza izango da alde aurretik sortu diren prestazioak bermatzea eta jardunean eta etendura-egoeran dauden bazkide osoen eskubide ekonomikoak lehentasunezko enpleguko gizarte aurreikuspeneko beste plan edo erakunde batzuetara sar daitezela aurreikustea, integrazio horren ondorioz egin beharreko zuzkidura ekonomikoekin batera, hala badagokio.

Integrazioa lehenetasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planetara eta/edo lehenetasunezko enpleguko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetara egingo da.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. EKARPENEN BALIOA HANDITZEKO FORMULA

Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Xedapen Iragankorretan araututako ekarpen instituzionalei eta Laugarren Xedapen Iragankorrean araututako ekarpen indibidualari Toki eta Foru Administrazioari atxikitako taldeak izan duen igotera berdina aplikatuko zaie.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Behin kontingentzia gertatu denean, 3 zenbakidun Erregelamendu indargabetuari atxikita dauden Institutioaren bazkide oso guztiek prestazioa kapital moduan jasotzea eska dezakete, ekarpen indibidualak egiten badituzte. Aldiz, ekarpen instituzionalen kasuan, errenta moduan jasoko dituzte, hirurogeita bost euroko (65 euro) errentak gainditzen ez badituzte, horiek kapital modura likidatuko baitira. Gaixotasun larrien gastuei dagokienez, sortutako osasun-gastuen zenbatekoa kapitalean ordainduta itzuliko da, bazkidearen eskubide ekonomikoaren kargura eta hura agortzen den arte.

Hala badagokio, kapital modura jasotzeko zenbatekoa zehaztu ondoren, xedapen honetan ezarritakoaren arabera, bazkide osoak zenbateko txikiagoa jasotzea eskatu ahal izango du.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA ARABA

Arabako Foru Mutua zaharrera afiliatuta egon diren bazkide osoek 2003ko abenduaren 31n Erakundeari egiten zizkioten ekarpen indibidualak mantendu ahal izango dituzte, zenbateko berdinarekin, ARCEPAFEn edo hura ordeztzen duen akordioan banaka hitzartutako ekarpenek horiek gainditu arte. Une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Gasteizko Udalari zerbitzu ematen dioten Xedapen Iragankor honetako bazkide osoek 2003ko abenduaren 31n Erakundeari egiten zizkioten ekarpena indibidualak egiten jarrai dezakete. Ekarpen horiek urtero areagotzen joango dira, Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutako moduan, Gasteizko Udalak haietako bakoitzari dagozkion kuotak ordaintzeko duen konpromisoa amaitzen den arte, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera. Une horretatik aurrera, bazkide bakoitzak Erakundeari egin beharko dizkio ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Bere garaian Arabako Foru Mutuari atxikita zeuden Institutioek eta langileak lekualdatzeagatik araz horrela onartu duten eta lehen adierazitako langileen zerbitzuak jasotzen dituzten instituzioek 2003ko abenduaren 31n egiten zituzten ekarpenak mantenduko dituzte. Ekarpen hori urtero igotzen

joango da Erregelamendu honen Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritako moduan, Instituzioak konpromiso hori mantendu bitartean, eta une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA GIPUZKOA

1981eko uztailaren 1ean GTFAEPOZn alta eginda zeuden eta 2005eko abenduaren 31 baino lehen erretira daitezkeen bazkide osoek 2003ko abenduaren 31n Erakundeari egiten zizkioten ekarpen indibidualak mantendu ahal izango dituzte, ARCEPAFEn edo hura ordeztzen duen akordioan banaka hitzartutako ekarpenek horiek gainditu arte. Une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Lehen adierazitako taldetik eta dagozkien Instituzioetatik datozen bazkide pasiboek eta pertsona onuradunek 2003ko abenduaren 31n izaera hori mantendu bazuten, ekarpenak irizpide berdinekin egiten jarraituko dute 2005eko abenduaren 31ra arte.

GTFAEPOZra atxikitako Instituzioek, 2003ko abenduaren 31n lehen adierazitako langileen zerbitzuak jaso bazituzten, data horretan egindako ekarpena mantenduko dute. Ekarpen hori urtero igotzen joango da Erregelamendu honen Lehenengo Xedapen Osagarrian ezarritako moduan, 2005eko abenduaren 31ra arte, eta, une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Halaber, 2003ko abenduaren 31n arrisku-kuota konpentsatua ordaintzen zuten Instituzioek langile bakoitzaren kuota indibidualak eta dagozkien berrikuspenak ordaindu beharko dituzte 2005eko abenduaren 31ra arte. Une horretan, pasako dira aurreko paragrafoko taldearentzat adierazitako egoerara nahitaez.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Asparrena, Eltziego, Iruña Oka, Bastida, Laguardia, Leza, Lantaron, Nabaridas, Zanbrana, Aia, Azpeitia, Zegama, Deba, Getaria, Amezketa, Segura, Urretxu, Orio, Zarautz, Zumarraga, Artea, Barrika, Gordexola, Izurtza, Laukiz, Muxika, Sopuerta eta Ugaoko Udaletan eta haien mendeko organismoetan zerbitzuak ematen dituzten bazkide osoak eta Eusko Jaurlaritzaren, Osakidetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzionarioak 2003ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari baziren 2. zk. Erregelamenduak zehaztutako erregimenera, data horretan Erakundeari egiten zizkioten ekarpen indibidualak mantendu ahal izango dituzte, ARCEPAFEn edo hura ordeztzen duen akordioan banaka hitzartutako ekarpenek horiek gainditu arte. Une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Instituzio eta Organismo horiek eta estatuko klase pasiboekin edo MUFACerekin ordainketa-konpromisoak dituztenek 2003ko abenduaren 31n langileei egiten zieten ekarpena mantenduko dute. Ekarpen hori urtero igotzen joango da Erregelamendu honen Lehenengo Xedapen Osagarriak ezarritako moduan, alderdien arteko akordioez egoera hori aldatzen ez den bitartean.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2003ko abenduaren 31ra arte indarrean egon den 2. Erregelamendua betez ekarpenak egiten dituzten eta Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Xedapen Iragakorretan jasotako taldeetako kide ez diren bazkide osoek data horretara arte Erakundeari egiten zizkioten ekarpen indibidualak mantendu ahal izango dituzte, ARCEPAFEn edo hura ordeztzen duen akordioan banaka hitzartutako ekarpenek horiek gaingitu arte. Une horretatik aurrera, Erakundeari egin beharko dizkiote ekarpenak, haren Gobernu Batzordeak urtero zehaztutako zenbatekoarekin.

Bazkide osoak espresuki uko egiten ez dion bitartean, ekarpen horiek jasotzeko eskubidea mantenduko da, eta ekarpen horiek urtero igotzen joango dira Erregelamendu honen lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritako moduan.

Bazkide babeslearekin duten lan- edo estatutu-harremana bukatu duten bazkide osoek Erakundeari ekarpenak egiten jarraitzea erabakitzen badute, horrela jarrai dezakete denbora-mugarik gabe, 2003ko abenduaren 31ra arte indarrean egon zen 2. Erregelamenduaren arabera.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo Xedapen Iragakorretik Laugarren Xedapen Iragakorrera bitartean ezarritakoaren mende dauden bazkide osoek ekarpenen % 88 aurrezteko erabiliko dute, eta gainontzeko % 12, berriz, kapital gehigarria bermatzeko, % 92-8 erregimen orokorra aplikatu nahi dutela espresuki eta idatziz adierazten ez badute.

Aipatutako ehuneko aplikagarria mantentzen den bitartean, 1,80ko koefizientea aplikatuko zaio talde horri, Erregelamendu honen 13. artikuluan adierazitako kapital gehigarria zehazteko.

SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregelamendu honen 12.1 artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, 2003/12/31 aurreko bazkide osoek erretiro-prestazioa sortzen den unean, bi aukera dituzte. Batetik, eskubidez dagokien pentsioa kobra dezakete, eta, bestetik, kapital bat jaso dezakete, 2005/12/31ra arte, erreskatea kenduta hala badagokio, egindako ekarpen indibidualen harira haien izenean esleitutako Eskubide Ekonomikoengatik, data horretatik aurrera sortutako etekinak gehituz. Kapitala erretiro-prestazioa sortzean sisteman dauden Eskubide Ekonomiko Orokorren % 25 izango da, gutxienez, eta, halaber, gainontzeko eskubide ekonomikoei dagokien pentsioa ere jaso dezakete, Erregelamendu honi jarraikiz.

Kapital modura kobratutako pentsioaren zenbatekoa ezingo da erretiro-prestazioa eragiteko unean bazkidearen izenean esleitutako ekarpen indibidualari dagokion Eskubide Ekonomikoa baino handiagoa izan, inolaz ere.

Halaber, 2. Erregelamendutik datozen bazkide osoek haien ekarpenak berreskuratzeko eskubidea badute edo eskubide hori gauza badezakete, erretirora arte mantenduko dute 2003/12/31n haien izenean esleituta dituzten Eskubide Ekonomikoak, gehi eskubide horiek data horretatik aurrera sortu dituzten etekinak eskuratzeko eskubidea. Kasu horietan, gastuen komisioa berreskuratutako zenbatekoaren % 1,6 izango da.

ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2003ko abenduaren 31n jada aitortutako eta ordura arte indarrean zegoen 2. Erregelamendutik datozen pentsioek eta 2003ko abenduaren 31tik; hiru urteko epean, Xedapen honetan jasotakoa betez, haien pentsioa sortzeko aukera idatziz eta espresuki gauzatu zuten 2. Erregelamendutik datozen bazkideen pentsioek honako hauek bete beharko dituzte:

2014ko abenduaren 31n atxikita zegoen taldea: 2.271

Hauek dira errenta kalkulatzeko parametro finantzarioak eta aktuarialak:

- Interes teknikoa: % 5
- Biziraupen-taulak: PERM/F 2000C

Errenten ezaugarriak:

- Balioa handitzea: ez, Batzar Nagusiak espresuki hala erabakitzen ez badu.
- Mozkinetan parte hartzea: ez.
- Bazkide osoaren erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta alarguntzako errentak biziartekoak dira.
- Ezkontideari itzultzea: erretiratuaren edo ezinduaren errentaren % 50aren baliokidea den biziarteko errenta.
- 25 urtetik beherako seme-alabei itzultzea: erretiratuaren edo ezinduaren errentaren % 9aren baliokidea den zurtasun-errenta, 25 urtetik beherako seme-alaba bakoitzarentzat, adin horretara iritsi arte. Zurtasun-errenten gutzizkoak ezingo du erretiroko edo ezintasun iraunkorreko errentaren % 50 gainditu.

2003ko abenduaren 31n eragindako alarguntza-pentsioak dituzten eta orain indargabetuta dauden erregelamenduetatik datozen jarduneko langileen kasuan, pentsioen zenbatekoa 25 urtetik beherako seme-alabei itzuliko zaie (halakorik balego), pentsioaren titularra hiltzen den unean.

2003ko abenduaren 31n jada aitortuak zeuden minusbaliatuentzako zurtasun-pentsioak biziartekoak izango dira.

ZORTZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2. Erregelamenduan zehaztutako arrisku-prestazioetarako salbuespenak, bazkide oso jakin batzuetarako ezarri baziren haiek Erregelamenduan alta ematerako unean, ez dira aplikatuko bazkide horiek Erregelamendu honetara atxikitzen diren unetik, 1. Erregelamendu zaharrean alta egitean salbuespen hori aplikatu ez bazaizkie behinik behin.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Erakundearen edo Elkarkidetza Pentsio Funtzari atxikitako Pentsio Planen sustatzaile diren edo izan diren Toki eta Foru Administrazioen edo haien Sozietateen Instituzioek izaera hori galtzen badute edo dagokion kuota instituzionala ordaintzeari uzten badiote, haren uneko eta etorkizuneko langileek eta funtzionarioek denbora mugagabea mantenduko dute mutualista izateko eskubidea, eta, horrenbestez, kuotak ordaindu beharko dituzte Elkarkidetza Enpleguko BGAEren etorkizuneko prestazioak jasotzeko, ekarpen instituzionalik ez badago ere.

HAMARGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2015eko martxoaren 25a baino lehen eragindako pentsioek, Zazpigarren Xedapen Iragakorretik datozenek salbu, honako hauek beteko dituzte:

2014ko abenduaren 31n atxikita zegoen taldea: 2.411

Hauak dira oinordekoentzako aldi baterako errenta eta bermea kalkulatzeko erabili diren parametro finantzarioak eta aktuarialak:

- Interes teknikoa: % 4, 2011ko martxora arte kausatu diren pentsioetarako.
- Interes teknikoa: % 3,5, 2011ko apiriletik kausatu diren pentsioetarako.
- Biziraupen-taulak: PERM/F 2000P

Errenten ezaugarriak:

Balioa handitzea: ez, Batzar Nagusiak espresuki hala erabakitzen ez badu.

Mozkinetan parte hartzea: ez.

- Bazkide osoaren erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta alarguntzako errentak biziartekoak dira.
- Ezkontideari itzultzea: erretiratuaren edo ezinduaren errentaren % 50aren baliokidea den biziarteko errenta.

- 25 urtetik beherako seme-alabei itzultzea: erretiratuaren edo ezinduaren errentaren % 9aren baliokidea den zurtasun-errenta, 25 urtetik beherako seme-alaba bakoitzarentzat, adin horretara iritsi arte. Zurtasun-errenten guztizkoak ezingo du erretiroko edo ezintasun iraunkorreko errentaren % 50 gainditi.

- Oinordekoentzako behin-behineko bermea:

- o Erretiroduna edo ezindua prestazioa aitortu eta hurrengo bost urteen barruan hilko balitz eta alarguntza-prestaziorik ez balego, erretiratuaren edo ezinduaren oinordekoek eskubidea edukiko dute heriotzaren unean prestazioa ordaintzeko behar diren horniduren % 50 kapital modura kobratzeko.

- o Erretirotik edo ezintasun iraunkorretik eratorritako alarguntzaren onuraduna jatorrizko prestazioa aitortu eta hurrengo bost urteen barruan hilko balitz, erretirodunaren edo ezinduaren oinordekoek eskubidea edukiko dute heriotzaren unean prestazioa ordaintzeko behar diren horniduren % 50 kapital modura kobratzeko.

- o Bazkide osoaren alarguntzaren onuraduna prestazioa aitortu eta hurrengo bost urteen barruan hilko balitz, bazkide osoaren oinordekoek eskubidea edukiko dute heriotzaren unean prestazioa ordaintzeko behar diren horniduren % 50 kapital modura kobratzeko.

Aldi baterako berme horren eraginetarako, pertsona erretiratuaren edo ezinduaren edo bazkide osoaren oinordekoak dira oinordeko gisa ezarritakoak, edo horrelakorik ezean, legezko oinordekoak.

Erakundearen Gobernu Batzordeak aitortutako prestazioak, eskatzaileak gertaera eragilearen unean zuen egoera pertsonalaren eta familiarraren adierazpen espresaren arabera ezarri ziren soilik, eta eskatzailea da adierazpena benetakoa eta egiazkoa izatearen erantzule bakarra. Pentsioaren zenbatekoa eta hortik erator zitezkeen prestazioak modu aktuarialean zehaztu ziren, eskaera gauzatzean egindako adierazpen espresa oinarri hartuta.

Gertaera eragilearen unean egiten den adierazpen espresean jasotako egoeraren bat aldatzen bada ere (hala nola egoera zibila, bizikidetzaz, adopzioa edo gertaera eragilearen unean aitortu gabeko beste egoera batzuk), ez du eraginik izango etorkizuneko prestazioetan.

HAMAIKAGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Bazkide osoak 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko martxoaren 25era bitartean erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta alarguntzako pentsioak eragin baditu, hiru hileko epean haren pentsioa eragitea eska dezake, 2015eko martxoaren 25etik aurrera, Erregelamendu honetan ezarritakoari eta indarreko diseinu teknikoari jarraikiz. Bazkide pasiboek edo bazkide osoaren alarguntzaren onuradunek aukera hori espresuki eta idatziz gauzatu beharko dute lehen adierazitako epean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2003ko abenduaren 31n, 1. eta 2. Erregelamenduak indargabetu ziren.

2010eko martxoaren 24an, Erakundeak sinatutako atxikipen-erabaki guztiak eta 3. Erregelamendua indargabetuta geratu ziren, ondore guztietarako.